

INFANCIA MISIONERA 2016

CATEQUESIS

OBJETIVOS

1. Promover en los niños y niñas los valores de la gratitud y la generosidad
2. Iniciar a los niños y niñas en la oración de acción de gracias para agradecer lo que han recibido
3. Animarles para que participen en la preparación y celebración de la próxima Jornada de Infancia Misionera.

VER

AMBIENTACIÓN

Presentar el cartel de la Jornada de Infancia Misionera, donde se ve a un grupo de niños y niñas que, a modo de pancarta, lleva un cartel con la palabra "¡Gracias!".

Invitar a los niños y niñas a que describan el cartel: ¿cómo son los niños, las casas? ¿de dónde vienen? ¿por qué llevan ese cartel?

Localizar los cinco continentes en un **mapamundi**, para entender que el mundo es la casa de todas las personas y que estamos llamados a convivir dentro de la diversidad, formando una única familia. Los niños y niñas de la Infancia Misionera tienen las **manos extendidas** para ofrecer y dar gracias. Recordemos el decálogo de la Infancia Misionera. Uno de los apartados es dar las gracias: "**Las niñas y niños misioneros siempre dicen GRACIAS**".

Por eso, se les pregunta a las niñas y niños: Nosotras y nosotros... ¿de qué podemos dar las gracias a los niños y niñas de otros continentes? (Sugerimos algunos ejemplos, gracias por su alegría, sus ganas de aprender, la música, su aporte a la ciencia – nombrar a Dr. Patarroyo estudia una vacuna contra la malaria...)

CUENTO: El árbol mágico

Hace mucho mucho tiempo, un niño paseaba por un prado en cuyo centro encontró un árbol con un cartel que decía: *soy un árbol encantado, si dices las palabras mágicas, lo verás.*

El niño trató de acertar el hechizo, y probó con *abracadabra, supercalifragilisticoespialidoso, tan-ta-ta-chán*, y muchas otras, pero nada. Rendido, se tiró suplicante, diciendo: "*¡¡por favor, arbolito!!*", y entonces, **se abrió una gran puerta en el árbol.** Todo estaba oscuro, menos un cartel que decía: "*sigue haciendo magia*". Entonces el niño dijo "*¡¡Gracias, arbolito!!*", **y se encendió dentro del árbol una luz que alumbraba un camino hacia una gran montaña de juguetes y chocolate.**

El niño pudo llevar a todos sus amigos a aquel árbol y tener la mejor fiesta del mundo, y por eso se dice siempre que "por favor" y "gracias", son las palabras mágicas.

Diálogo

La catequista abrirá el diálogo para ver lo que han entendido:

- ¿Qué es lo que encontró el niño del cuento?
- ¿Cómo era el árbol?
- ¿En qué consistía el encanto?
- ¿Cuándo y a quién decimos gracias nosotros y nosotras?

JUZGAR

LECTURA Mt 6, 25-26

“No estéis preocupados por lo que habéis de comer o beber para vivir, ni por la ropa con que habéis de cubrir vuestro cuerpo. (...) Mirad las aves que vuelan por el cielo: ni siembran ni siegan ni almacenan en graneros la cosecha; sin embargo, vuestro Padre que está en el cielo les da de comer. Pues bien, ¿acaso no valéis vosotros más que las aves?”

Hacemos referencia a las y los misioneros que están en los cinco continentes y trabajan por un mundo que sea casa de todos en el que todas las personas tengan qué comer o con qué vestirse, compartiendo su vida para que seamos una misma familia. Pensemos en ellos y ellas también para decirles Gracias.

ACTUAR

En un papel continuo que pegaremos en la pared, la catequista pintará un árbol y repartirá a los niños y niñas papeles de un color en los que cada uno escribirá dos cosas por las que quiere dar gracias en estos días

En papeles de distinto color escribirán un agradecimiento a los niños y niñas de otros continentes por lo que nos comparten y otro a las misioneras y misioneros que están por todo el mundo compartiendo la vida y la fe con otras personas y las pegarán en el árbol después de leerlas en voz alta. Confeccionaremos así nuestro árbol mágico particular.

Les repartiremos también la lámina de colorear para que la pinten y decoren la sala de catequesis.

CANTO – ORACIÓN

ESKERRIK ASKO, JAUNA,
BIHOTZ BIHOTZETIK
ESKERRIK ASKO, JAUNA,
ORAIN ETA BETI.

Eskerrik asko, Jauna,
gugan zaudelako
eta zure biziaz
bizi garelako.

Erakutsi diguzu
zure maitasuna
ta maitasun bidea
den zuzentasuna.

Zu zaitugu artzaina,
gu zure artalde.
Gure bihotzak beti
behartsuen alde.

Zure antzera, Jauna,
gaitezela ibili.
Zure antzera, Jauna,
on eginez beti.



HAUR MISIOLARIAK 2016

KATEKESIA

HELBURUAK

1. Doakotasuna eta eskuzabaltasuna bezalako balioak suspertu haurrengan.
2. Hurrei hastapenak eman eskerroneko otoitzean, jaso duten guztia esker dezaten.
3. Haur Misiolarien Jardunaldiaren prestaketan eta ospakizunean parte hartzera bultzatu.

IKUSI

GIROTZEA

Haur Misiolarien jardunaldirako kartela aurkeztu. Neska-mutiko batzuek, pankarta erara, kartela daukate eskuetan “ESKERRIK ASKO!” hitzarekin.

Kartela deskribatzeko eskatu hurrei: nolakoak dira haurrak, etxeak?, nondik datoz?, zer dela-eta daramate kartel hori?

Bost kontinenteak kokatu **mapamundian**, mundua pertsona guztien etxea dela eta, aniztasunean, familia bakarra osatuz, bizikide izatera deituak garela ulertzeko. Haur Misiolariek **eskuak luzaturik** dituzte, eskaintzeko eta eskerrak emateko. Gogora dezagun Haur Misiolarien dekalogo. Ataletako bat eskerrak ematea da: “**Mutiko eta neskato misiolariak beti diote ESKERRIK ASKO**”.

Horregatik, galdera egingo diegu neska-mutikoei: Guk geuk, zergatik eman diezazkiekegu eskerrak beste kontinente batzuetako hurrei? (adibide batzuk jarriko ditugu: eskerrak eman beren alaitasunagatik, ikasteko gogoagatik, musikagatik, zientziari egindako ekarpenagatik –malariaren aurkako txertoaren inguruan ikerketak egiten ari den Patarroyo doktorea aipatu...).

IPUINA: Zuhaitz magikoa

Duela urte asko, mutiko bat landan paseatzen ari zen eta erdi-erdian zuhaitz bat aurkitu zuen kartel batekin: *zuhaitz sorgindua naiz, **hitz magikoak esaten badituzu, ikusiko duzu.***

Mutikoa sorginkeria asmatzen saiatu zen eta hainbat proba egin zuen: *abracadabra, supercalifragilisticoespialidoso, tan-ta-ta-chan...* eta beste hitz batzuk esanez, baina ezer ez. Etsita, bere burua lurrera bota zuen erreguka: *mesedez, zuhaitzxo!*, eta orduan **ate handi bat ireki zen zuhaitzean**. Ilun zegoen, baina distiratsu agertzen zen kartel bat: *jarraitu magia egiten*. Orduan, mutikoak esan zuen: *Eskerrik asko, zuhaitzxo*, **eta argia biztu zen zuhaitzaren barrualdean, jostailuz eta txokolatez osatutako mendi handi baterantz zeraman bidean argi egiten zuelarik**.

Haurrak bere adiskide guztiak eraman zituen zuhaitz hartara eta munduko festarik onena izan zuten; horregatik esaten da beti “mesedez” eta “eskerrik asko” hitz magikoak direla.

Elkarrizketa

Katekistak elkarrizketa biztuko du, zer ulertu duten ikusteko:

- Zer aurkitu zuen ipuineko haurrak?
- Nolakoa zen zuhaitza?
- Zertan zetzan sorginkeriak?
- Noiz eta nori diotsogu 'eskerrik asko'?

EPAITU

IRAKURGAIA: Mt 6, 25-26

“Ez kezkatu bizitzeko zer jan edo edango, edota gorputza zerez jantziko (...) Begira aireko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez ote duzue horiek baino askoz gehiago balio zuek?”

Bost kontinenteetan dauden eta mundua guztion etxe bihurtzen, eta etxe horretan denok jatekoa edo jantziak izan ditzagun biziki saiatzen diren misiolariak gogora ekarriko ditugu; beraien bizia ematen dute denok familia bera osa dezagun. Pentsa dezagun beraiengan 'eskerrik asko' esateko ere.

EKIN

Paper jarraitua itsatsiko dugu horman eta katekistak, bertan, zuhaitza margotuko du. Kolore bateko paperak banatuko dizkie hurrei eta hauek eskerrak emango dituzte bi gauzarengatik.

Beste kolore bateko paperetan, eskerrona adieraziko diete beste kontinente batzuetako hurrei banatzen dutenarengatik eta munduan zehar, bizia eta fedea beste batzuekin konpartituz bizi diren misiolariari. Boz goraz irakurri ondoren, zuhaitzean itsatsiko dituzte. Horrela, geure zuhaitz magikoa eratuko dugu.

Koloreztatzeko orria ere banatuko diegu, margotu eta katekesiko gela apain dezaten.

ABESTIA - OTOITZA

ESKERRIK ASKO, JAUNA,
BIHOTZ- BIHOTZETIK
ESKERRIK ASKO, JAUNA,
ORAIN ETA BETI.

Eskerrik asko, Jauna,
gugan zaudelako
eta zure biziaz
bizi garelako.

Erakutsi diguzu
zure maitasuna
ta maitasun bidea
den zuzentasuna.

Zu zaitugu artzaina,
gu zure artalde.
Gure bihotzak beti
behartsuen alde.

Zure antzera, Jauna,
gaitezela ibili.
Zure antzera, Jauna,
on eginez beti.

